

Heri Aldizkaria

otomotz

2000ko ekaina 58. alea



Larraitz Sorron Herritar bat zakur-leretan

IRITZIZ-IRITZI: JOXE MARI GABIRIA

ELKARRIZKETA: MARRUBI SOUND

ERREPORTAIA: SELEKTIBITATEA, URTEROKO AMESGAIZTOA



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua

Miguel ALTUNA


2000/2001 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAITZA

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxogintza

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrarritza kudeaketa



Aurrematrikula epea zabalik:
ekainaren 1etik 12ra

Ohiko matrikula epea:
uztailaren 3tik 7ra

Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
Behar diren baliabideekin
Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Helbidea: Ibargarai 1 (Frontoi parean). ☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

Bulego orduak: 9etatik 13etara

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu



Hilabete honetan ikusi dezakegun neska koadrila honi 30 hamarkadan atera zioten argazkia. Hauexek dira garaiko moda jarraituz dotore-dotore ikusten ditugun nesken izenak:

Goian: Resu Mendizabal, Maria Arzelus, ... Lasa eta Carmen Rodriguez.

Behean: Rosita Telleria, Angela Okariz, Justa Mendizabal, Angeles Arzelus eta Cristina Antia.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Iñaki Beitiaren Omenezko IV. Mendi Martxak arrakasta itzela



Mirandaolan atsedena hartu eta indarrak berritzeko aukera bikaina izan zuten parte hartzaileek.

Maiatzaren 14an Iñaki Beitiaren Omenezko IV. Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldia izan zen gure bi herriotako eta inguruko mendietan zehar. Aurtengoan ere mendi ibilaldiak arrakasta itzela izan du eta 477 mendizalek izena eman zuten, 246k ibilaldi motza eta 231k luzea egiteko asmoz. Hauetatik 60 soilik ez ziren atera edo erretiratu ziren. Eguraldi zoragarria lagun eta bakoitza bere martxa jarraituz mendizaleak pixkanaka-pixkanaka Kalebarren-Areizaga enparantzako helmugara heldu ziren. Parte hartzaileak antolaketa lanaz oso gustura agertu ziren eta ibilaldiko puntu ezberdinetan berrindartzeko nahi adina jana eta edaria izateaz gain, helmugara heltzean masaialarien lan onari esker zangoetako nekeari aurre egin ahal izan zioten.

Nahiz eta ibilaldia ez den lasterketa bat, hona hemen mendi ibilaldiaren estatistikara pasako diren zenbait datu: ibilaldi motza egiten lehenengoa Aizpurutxoko Jesus Mari Errazu izan zen eta 3 ordu eta 40 minutu soilik behar izan zituen. Ibilaldi luzea bukatzen lehenengoa, berriz, Jon Larruzea, Jesus Mari Gondra eta Aitor Kortabarria bizkaitarrak izan ziren, 6 ordu eta 40 minutuko denboran. Urretxu eta Zumarragako lehenengoa Benito Martnez, Migel Mari Lasa eta Juanjo Sagastibeltza izan ziren. Dena den, ibilaldi luzean parte hartu zuten gehienak arratsaldeko laurak eta bostak bitartean heldu ziren, hau da, 10-11 ordu behar izan zituzten.

Bestalde, antolatzaileek inkesta bat betetzeko aukera eskaini zieten parte

hartzaileei, hurrengo ekitaldietan antolaketak hobetzeko asmoz. Bildutako datuen arabera, parte hartzaileek ibilbidearen gogortasuna azpimarratzeaz gain, anoa-postuak, mendi-martxan zehar partaideen artean bizi izan zen giro ona eta paisaien edertasuna goraiatu zituzten. Kexak batik bat irteera sistimari eta markaketari zuzendurik egon dira, punturen batean batek baino gehiagok zalantza izan eta okerreko bidea hartu baitzuen. Azpimarratu beharra dago, izen-emate txartel zein inkesta gehienak euskaraz bete zirela eta partaideen artean ere euskal giroa nagusi izan zela. Antolatzaileen esanetan aurtengo ekitaldia oso arrakastatsua izan da eta lerro hauen bidez parte hartzaileei eskerrak eman eta datorren urterako gonbitea luzatu nahi diete.

Urretxu-Zumarragako V. Liburu Azoka

Azken urteotan legez, maiatzaren 5etik eta 12ra bitartean Urretxu eta Zumarragako V. Liburu Azoka ospatu da Areizaga-Kalebarren enparantzan. Aurten 14 saltoki izan dira eta berrikuntzarik nagusiena bi udaletako saltokian herritarrek liburutegietan utzitako liburuak saldu direla izan da. Herritarrek utzitako 900 liburu inguru bildu dira bi herrietako liburutegietan eta hauetako gehienak saldu dira azokan. Liburu hauen salmentaz lortutako dirua eta sobratutako liburuak "Libros para el mundo" gobernuz kanpo-

ko erakundeari eman zaizkio eta honek Nicaraguara bidaliko ditu bertan liburutegi bat egiten laguntzeko.

Gainontzeko postuetan ere salmenten maila oso ona izan omen da. Zabaltzen argitaletxeko liburu saltzaileek esan digutenez, aurten liburu berri gehiago izan dira salgai eta bai hauek bai argitalpen zaharragoek oso harrera ona izan dute. Beraien esanetan azpimarragarriena, euskarazko liburuek eta euskal diskek izan duten salmenta maila bikaina izan da.

Baina gure bi herriotako irakur-

zaletasuna hobekien islatzen duena, bi liburutegiek urtean zehar duten bisitari kopurua da. Liburu Azokaren aurkezpen egunean Urretxu eta Zumarragako alkateak gustura azaldu ziren azken urte honetan bildu diren datuekin. Izan ere, urtebetean 10.000 bisitari pasa dira Urretxuko liburutegitik eta 17.000 Zumarragakotik. Irakurzaletasun hau dela eta, Urretxuko liburutegia handitu egin behar izan zuten duela gutxi eta Zumarragakoa, berriz, lekuz aldatu beharra ikusten da irakurleen eskaerei aurre egin ahal izateko.

Kroazia eta Eslobeniara euskaraz

Gasteizko Bagare Euskal Tokiak munduko kultura eta hizkuntza ezberdinak ezagutu eta gure euskara ezagutzera emateko asmoz, Kroazia eta Eslobeniara bidaia antolatu du abuztuaren 12tik 26ra bitartean. Bagarekideak ahalik eta bidaiaririk merkeena antolatzen saiatu direnez, dirua oztopo izan ez dadin, bidaia autobusez egingo da eta kanpinetan lo. Bidaiaren prezioa 37.000 pezeta ingurukoa izango da eta kanpinen batzbesteko prezioa 800 pezetakoa pertsonako.

Bidaia honetara joateko Euskal

Herriko edozein euskaldunek eman dezake izena, baldintza bakarrak euskaraz egiteko, lagun berriak ezagutzeko eta ondo pasatzeko gogoia izatea da. Bidaia aurrera ateratzen dadin 30 pertsona behar dituzte gu-txienez eta apuntatzeko azken eguna ekainaren 19a da. Oporretan nora joan erabaki ezinik bazabiltzate, hona hemen proposamen euskaldun eta kulturala. Informazio gehiago nahi baduzue Bagare Euskal Tokiko lagunekin harremanetan jarri zaitezke: Bagare Euskal Tokia. Aiztogile 62, 01001 Gasteiz. Tfnoa: 945 25 10 84.

Antzerki Astearen balorapena

Urretxu-Zumarragako

**XIV
ANTZERKI
ASTE**

**Maiatzaren
15etik
21era
bitartean**

"Joseba Etxeberriaren omenezkoa"

Hilabete honetan Josu Etxeberriaren omenezko Urretxu eta Zumarragako Antzerki Astearen XIV. ekitaldia izan da eta aurtengoan ere ikusleen erantzuna primerakoa izan da, bi herriotan kalitatezko antzerkiak jendea erakartzen duela argi utziz. Iñaki Salvador pianoan eta Jose Ramon Soroiz protagonista zituen "Ozeanoko pianista", estatu mailan sekulako arrakasta izaten ari den Albenaren "Besos" antzezlanak, beraien bigarren emanaldian gurean izan genituen "Ez da hain erraza" antzezlaneko lagunek (Joseba Apaolaza buru) eta aski ezaguna den Juan Tamarizek sekulako arrakasta lortu zuten.

Arrakasta hau bildutako diru-kopuruan ere atzeman da, aurtengoan kaleko antzerkia ere egon den arren, bildutakoa ia milioira heldu baita. Kaleko antzerkiaren saioa izan zen, hain zuzen ere, jende gutxien bildu zuena eta baliteke datorren

urterako egitarautik kentzea.

Urretxuko Kultur Etxeko Miren Castilloren esanetan "Urretxu eta Zumarragako ikuslegoa oso esker onekoa da eta Pagoeta Antzokiak gabezia dexente dituen arren, antzezle eta ikusleen arteko gertutasunari esker oso giro polita sortzen da. Talde oso ezagunak etortzen direnean, diru-sarrera handia izaten da eta irabazi hauekin urtean zehar beste ekintza batzuk antola ditzakegu. Honela, Antzerki Astearen talde afizionatuek lekurik ez dutenez, datorren urte hasieran inguruko antzerki talde afizionatuen topaketa bat egitea pentsatzen dugu. Bestalde, urria aldean jende ugari bilduko duen beste ikuskizun bat antolatuko dugu".

Mirenen esanetan azpimarragarria da, Antzerki Astea gero eta jende heldu gehiago hurbiltzea eta euskarazko lanek jada gatzelerazkoek bezainbeste

MASTER HEZKOR
CABLEA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaioa, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona

ARTURO

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

ALEX. VIBOLTA

alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA

GUREA

Iturgintza


Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 **URRETXU**

Pili Gabirondori ongi etorria

Estatu espainiarreko gartzeletan 7 urte eman dituen Pili Gabirondo ezkiotarrari ongi-etorri beroa eskaini zitzaion maiatzaren 20an. Taula gainean bere bi semeek lagundurik, herriko talde ezberdinen agurra eta opariak jaso zituen jendearen txalo zaparradaren artean. Dantzari, txalapartari, bertsolari eta gainontzekoen saioaren ondoren, ekitaldiko unerik hunkigarriena heldu zen: A Coruñaiko gartzelan preso dagoen eta Piliren senarra den Gonzalok idatzitako gutuna irakurri zenean, hain zuzen ere.

Ekitaldiari amaiera emateko presoak etxeratzearen aldeko manifestazioak bi herrietako kaleak zeharkatu zituen eta ondoren ongi etorri afaria egin zen Urretxuko pilotalekuan.



www.sasieta.net - Sar zaitez gure orrian

Artxiboa Edizioa Ikusi Joan Gustokoak Laguntza

Atzera Aurrera Gelditu Bermtu Hasiera Bilaketa Gustokoak Historiala Kanalak Pantaila OSOA

Helbidea <http://www.sasieta.net/>

www.sasieta.net

Hemendik aurrera Sasieta sarean ere bai !!

Informazioa! Lehiaketak! Opariak!


Galdera-zopa!! Oroigarri berezia!

Prest Sasietari buruz behar duzun informazio guztia

Kasiera Sar zaitez Opari asko Sasieta Net 18:49

Merkataritza Euskalduntzeko Plana

Aldiri: kiroldegiko taberna



Ale honetan aspalditik euskalduntzen ari den taberna bat dakarkizuegu. Izan ere, Aldiriko arduradunak bertako ardura hartu bezain pronto (orain dela 8 urte) hasi ziren tabernako paisaia linguistikoa euskaratzen. Aurrerantzean lan horretan eta euskalduntze-lanaren beste esparru guztietan, Zintzo-Mintzoren laguntza izango dute.

Aldirin, tabernaz gain, mokadu goxo askoak ere badaude. Garaian garaiko produktuekin egindako plater konbinatu, kazuelatxo, bokadilo eta pintxo aukera zabala dago, etxetik kanpo edozein unetan tripazorriak isilarazteko, edo, besterik gabe merienda edo afari-pasadatxoa egiteko aproposak direnak.

Aldiri, polikiroldegiko taberna, non dagoen esatea soberan dago, baina hona hemen interesgarriak izan daitezkeen datu pare bat:

- Asteko atsedeen eguna: astelehena (eta jai egun biharamonak).
- Telefonoa: 943 72 58 37



URRETXU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipēnarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68



RENE argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292



MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



ARKYPE
TABERNA



ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU



Joxe Mari Gabiria


Zortzi-hamar urte nituen garaiko kontuak dira. Artean ez nuen erlojurik; ez dut uste gutako beste inork ere bazeukanik, baina nekez deskuidatzen ginen etxeratzeko orduarekin. Izan ere, sinistuta geunden bazela, iluntzen hasi orduko, gure antzeko ume mukizuak harrapatzen ibiltzen zen gaizkile bat, "Sacamantecas" izenekoa. Auzoko mutil gu baino zahartxerago batzuk esanda izan genuen "Sacamantecas"en berri. Saskitxo batekin ibiltzen zela beti, esan ziguten, eta saskitxoan gordeta aizkora txiki bat eta laban zorrotza izaten zituela, harrapatzen zuen neska edo mutikoari erraiak ateratzeko.

Urretxuko Goiko Kaleko neskato bati gibela kendu ziola... Eitzako mutiko bati bihotza. Beldurrez baina, aldi berean, emozioz beterik entzuten genituen kontu haiek. Orduan ez genekien adrenalina bazenik ere, baina gure barruan irakiten ibiliko zen.

Etxean kontatutako istorioak izan balira, zalantzaren ba-tzuk izango genituzkeen, agian, baina informatzaile haiek sinisgarritasun osoa zuten guretzat. Gure kalterako, azken batean. Izan ere, "Sacamantecas" hura zela medio zenbat sufritu genuen, zenbat aldiz korrika egin bera atzetik zetorrela uste izanda, zenbat amesgaizto... arik eta amak praka luzeak erosi zizkidan arte. Gure mentalidadera-

ko prakaren luze-laburrak markatzen baitzuen mutiko eta gizonen arteko muga.

“Sacamantecas hura zela medio zenbat sufritu genuen, zenbat aldiz korrika egin bera atzetik zetorrela uste izanda...”




Muga hori pasatzeko garaia iritsi zitzaigun guri ere, hasi ginen praka luzeak jantzi eta bizarra kentzen... eta auzoko neska-mutikoei guk gure aurrekoei entzundako "Sacamantecas"en istorio berberak kontatzen, Goiko Kaleko neskatoarena eta Eitzako mutikoarena. Eta harritu ginen esandako guztiak sinisten zizkigutela ikusten.

Oraindik orain jakin dut "Sacamantecas" ez zela praka motzeko mutikoen kontura dibertitzeko haundiagoen asmakizuna. Bene-benetakoa izan zela... eta euskalduna. Juan Díaz de Garaio Ruiz de Argandoña zuen izena eta Arabako Egiraz herrian jaio zen 1821. urtean. Inguru hartako beste askoren antzera nekazaria zen, baina ondasun gutxikoa izaki morroi ibili zen Agurain, Añua eta Dulantzin. Lau aldiz ezkondu zen eta lau aldiz alargundu. Historiak dio sei emakume bortxatu eta hil zituela. Beste lau kasutan bere biktimek ozta-ozta lortu zuten ihes egitea. 1880an atxilotu zuten eta urte bereko maiatzaren 11n urkatu Gasteizen. Bere ibilera gordin eta bizimodu odoltsua gai harturik nobela eta pelikula bana egin ziren - "Cuerda de presos" -. Hil ondoren bere garuna ikertu zuten Gasteiz eta Madrilgo zenbait medikuk. Ez zuten ondorio berezirik atera. Hiltzaile arrunta izan zela, besterik ez. Mediku eta ikerketarik egin beharrik gabe jakin genuen hori gure auzoko neska-mutikoei zortzi-hamar urte

Ferretería

BRAVO, S.L.




INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Motorrek zarata gehiegi ateratzen dutela uste al duzu?




Aitor Aiastui

Niri motorrak asko gustatzen zaizkit eta zarata ere bai. Motorra erosi nahi dut eta gurasoek ez didate uzten, baina erosten dudan egunean zarata aterako dut.




Jabier Moriles

Scooterrek ez dute zarata ateratzen, baina mendikoek gehiegizko zarata ateratzen dute eta niri ez zait batere gustatzen.




Josune Alberdi

Nire ustez zarata gehiegi ateratzen dute eta abiadura bizian ibiltzen dira gainera. Neurriak hartu beharko lirateke.



Antonio Sudupe

Zaratak baino gehiago abiadurak kezkatzen nau ni, herri barruan, jendea oinez dabilen lekuetan, arrisku handia sortzen baitute.



Iñigo Aztiria

Zarata asko ateratzen dute, baina niri gustatzen zait. Gainera nik ere motorra dut eta zarata dexente ateratzen du. Noizbait kexatu zaizkit.



Maitane Probanza

Moto batzuek gehiegizko zarata ateratzen dute, mendikoek adibidez, eta gainera azkarregi joaten dira herri barruan. Hala ere, ez nau bereziki kezkatzen.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



Edu, Enrike, Aitor, Joseba eta Xabi; Arruazun eskaini zuten kontzertuan.

Marrubi Sound:

“Maketa berriak soinu *zikinagoa* du”

Edu, Xabi, Aitor, Joseba eta Enrikek gure herrian zein herritik kanpo musikaren alorrean pixkanaka-pixkanaka ezaguna egiten ari den Marrubi Sound taldea osatzen dute. Lehen maketarekin arrakasta itzela lortu zuten eta 400 kopia inguru saldu ondoren, aurten bigarren maketa grabatu dute. Soinu “zikinagoa” duela dioten hau ez dute salgai jarri behar, irrati eta lehiaketetara bidaltzeko

grabatu baitute, baina taldearen zaletua bazara, beraiei eskatu eta kopia ateratzea besterik ez duzu. Edu, Xabi eta Josebarekin izan gara eta denboraldi batean sormen lana lasaitasunez hartu eta dirua aurreztu ondoren, 10-12 bat abesti bildu eta baldintza onetan grabaturiko kalitatezko maketa bat kaleratu nahi dutela esan digute.

Nolatan sortu zenuten taldea?

Mirandan ikasten ari nintzela kitarra kurtsilo bat egin nuen (Edu) eta Xabirekin jotzen hasi nintzen, berak batera jotzen ikasi baitzuen bere pisuan zegoen Anari azpeitiarrak erakutsita. Ondoren koadrilako Aitor eta Enrike elkartu zitzaizkigun, nire gurasoen garajejan jotzen hasi ginen (Xabi) eta oraindik ere bertan jarraitzen dugu. Hasieran zarata atera besterik ez genuen egiten, baina Josebarekin elkartu eta berak gure lana zuzendu eta berarekin soinu garbiagoa egiten hasi ginen.

Joseba heldu aurretik hiru kontzertu eman genituen eta zuzenean nahiko arazo genituela ikusi genuen, oso errekurtsio gutxirekin hasi baikinenez zuzenean jotzen. Beste kitarra bat behar genuela ikusi eta Joseba heldu zenean ordurarte sortutako abesti gehienak baztertu genituen.

Zein eragin dituzuela esango zenukete?

Oso eragin ezberdinak ditugula uste dut (Joseba). Abesti bat sortzen dugunean, bakoitzak talde ezberdinen antza ateratzen diogu, nahiz eta Pixiesen izena

askotan ateratzen den. Eragina, noski, entzuten dugun taldeena da, baina ia-ia denetik entzuten dugu. Nik musika instrumentala entzuten dut gehienbat (Joseba), baina gero eta gauza gehiago entzuten ari naiz. Mikel Laboaren “Lili bat”etik Incubus bezalako taldeetara pasa gaitezke. Euskal Herritik niri behintzat, gehien, Ruper, Anari... gustatzen zaizkit eta musika kañerotik Dut (Xabi). Ill ikusi genuen Urretxun eta asko harritu gintuzten, ez baita Euskal Herrian egiten den musika tipikoa. Rock Radical Vasco deitu zen mobida amaitu

zenean kanpoko gauzak entzuten hasi ginen eta kanpora ikastera ateratzeak ere lagundu egin zigun.

Euskal Herriko egungo panorama aberatsa dela esango al zenukete?

Gure ustez hemen merezi bezain-beste ezagutzen ez diren talde pilo bat daude eta ohituak gauden soinetatik kanpo daudenak. Herri mailan bertan, oso joera ezberdina duten taldeak daude eta hau oso aberasgarria da. Ezagutzen ez den panorama hori oso ona da eta egon beharra du, baina komunikabideak eta disketeak arrakasta ziurra dutenarengana jotzen dute eta honek ez du aberastasuna erakusten. Bestalde, oso onak izanda ere, hain ezagunak ez diren taldeen kontzertuetara oso jende gutxi joaten da. Garai batean edozein kontzertutara jende ugari joaten zen eta orain ez. Guk Iruñea aldean dextentetan jo izan dugu eta hemen baino askoz jende gehiago mugitzen da kontzertuetan.

Non jo duzue batik bat urte hauetan gutzietan?

Gipuzkoan eta Nafarroan batez ere. Ekainean Tarragonara joango gara Urretxuko beste talde batekin. Guk 30 kontzertutik gora jo dugu eta saiatuz gero jotzeko aukera dextente dago (Edu). Jotzeko aukera badago, baina geroz eta arazo gehiago daude zarata dela eta. Andoainen eta Arrasaten arazoak izan genituen esaterako eta Iruñean udalaren baimena izan arren, udaltzainak etorri eta ezin izan genuen jo (Joseba).

Nola sortzen dituzue abestiak?

Normalean bakoitzak geure ideiak eramaten ditugu entsaiuetara eta

gero denon artean abestia gorpuzten dugu. Normalean lehenengo doinua sortu eta ondoren hitzak jartzen dizkiogu, bai kanpotik hartutakoak zein Xabik sortutakoak. Bigarren maketaren azken kantan Eduren anaiairen poema bati musika jarri genion, baina errazagoa iruditzen zaigu lehenengo musika sortzea. Kontrako bidea profesionalen esku uzten dugu.

“Lehen maketak soinu ona izan arren, ez du zuzeneko emanaldietan garena islatzen”

Zer nolako harrera izan zuen lehen maketak?

Ia guztia herrian saldu genuen, 400 bat maketa. Maketak ekarri zizkigutenean, kaja pilo bat, beldurtu egin ginen pixka bat, baina ez dakigu zergatik espero ez genuen bezalako arrakasta izan zuen. Grabaketan emozioa ezagutza baino handiagoa zen eta entzun genuenean benetan garena ez zuela islatzen konturatu ginen: kalitate ona zuen, baina kontzertuetako soinutik alde handiegia zegoen. Hau zuzendu nahiean bigarren maketa Errenteriako estudio txiki batean grabatu genuen, baina gauza batzuk zuzendu nahi eta beste batzuk kale egin dute. Gauzak ondo egiteko denbora eta dirua behar direla konturatu gara.

Irratietan zer nolako erantzuna jaso duzue?

Lehen maketa Euskadi Gaztean jarri izan zuten, eta bigarren hau Herri Irratian jartzen ari dira batik bat. Hala ere, ez da nahikoa entzuten. Talde asko daude eta maketa asko bidaltzen dira irratieta eta maketak lantzen dituzten saioetan soilik jartzen dituzte gurea bezalakoak. Maketa lehiaketek zenbait ate zabaltzen dituzte, baina irabazlea bakarra izaten denez... Irabazi gabe ere, pixka bat ezagunak egin eta talde ezagunekin jotzeko aukera eskaintzen dute eta ondorioz, talde ezagunen zirkuluan sartzen zara.

Bestalde, azkenaldian Koldo Mitxelena zentruan izan zarete poesia errezitaldi batzuei musika jartzen...

José Luis Padronek gure abesti batzuk entzun eta aukera hau eskaini zigun. Lokalean oso denbora laburrean prestatu genituen saioak berarekin batera eta oso gustura gelditu gara. Entzuleek ere oso inpresio ona jaso dute eta jendea ezagutzeko aukera izan dugu, orain eraginaren zain gaude. Kontraste handia izan zen eta jendearen arreata piztu zuen, atzeko musika jotzen ari ginela bat batean gure abesti bat jo baikenuen.

Zer asmo dituzue aurrerantzean?

Epe luzeko helburua egunen batean diska ateratzea litzateke, baina azkenaldian gomendatu dugunaren arabera, asmoa hurrengo grabaketa ondo egitea da. Horretarako diru pixka bat aurreratu eta inongo presa eta presiorik gabe 10-12 bat abestiko maketa on bat atera nahi dugu, bai abesti berriekin, bai orainarte sortutako abestiekin ere. Hori bai, zuzenean jotzen jarraituko dugu, jo gabe bolada luzea pasatuz gero tentsioa galtzen baita.

BILINTX

LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLEAN OSO GUSTURA ARITZEN ZARETEN ARREN, DENBORALDIA BERE AMAIERARA IRITSI DA ETA EZ DA BATERE SEINALE TXARRA, OPORRAK GAINEAN DAUDELA ESAN NAHI BAITU. IKASTURTEKO AZKEN EGUN HAUETAN GOGOR IKASI BEHARRA IZANGO DUZUEN ARREN, EZ ETSI ETA PENTSA OPORRAK OSO HURBIL DAUDELA. ZORTE ON AZTERKETETAN ETA ONDO IBILI ESKOLA KIROLEKO DENBORALDIARI AMAIERA EMATEN DION FESTAN!

BEISBOL TXAPELKETA INFANTIL MAILA, MUTILAK

TALDEAK	1	2	3	4	5	GUZTIRA
Iparragirre	1	1	1	1	2	6
La Salle B	1	1	1	0	0	3

TALDEAK	1	2	3	4	5	GUZTIRA
Olazabal	0	1	3	1	7	12
Haztegi C	0	1	0	0	0	1

TALDEA	JOKATUTAKO PARTIDUAK	IRABAZIAK	GALDUAK	ALDEKO LASTERKETAK	AURKAKO LASTERKETAK
Olazabal	1	1	0	12	1
Iparragirre	1	1	0	6	3
La Salle B	1	0	1	3	6
Haztegi C	1	0	1	1	12

SOFBOL TXAPELKETA INFANTIL MAILA, NESKAK

TALDEAK	1	2	3	4	GUZTIRA
Iparragirre B	0	5	1	1	7
Iparragirre A	5	5	5	5	20

TALDEAK	1	2	3	4	GUZTIRA
La Salle B	1	0	0	1	2
Haztegi A	3	5	4	4	16

TALDEAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
La Salle A		5	5	2	5	0	17
Olazabal		4	5	1	0	4	17

TALDEA	JOKATUTAKO PARTIDUAK	IRABAZIAK	GALDUAK	ALDEKO LASTERKETAK	AURKAKO LASTERKETAK
Haztegi A	1	1	0	16	2
Iparragirre A	1	1	0	20	7
La Salle A	1	1	0	17	17
Olazabal	1	1	0	17	17
La Salle B	1	0	1	2	16
Iparragirre B	1	0	1	7	20

“Datorren ikasturtean beisbolean eta hockeyan ere aritu nahi genuke”



Hilabete honetan La Salle ikastetxean Oinarrizko Heziketako 3. mailan ikasten ari diren mutil batzuekin hitz egin dugu. Beraiek Pablo Salvatierra, Joseba Maroto, Ander Avila, Gaizka Orbegozo, Alex Bravo eta Carlos Corrales dira.

Urtean zehar futbolearen, saskibaloian eta eskubaloian aritu dira, eta gehienek futbola dute gustukoaren. Dena den, behingoz futbolzalea soilik ez den mutiko bat ere aurkitu genuen, Anderrek saskibaloia baitu kirolrik gustukoena.

Gustuko taldea zein den galdetu genienean, bakoitzak berea zuela konturatu ginen, Ander eta Joseba soilik baitira Errealzaleak. Izan ere, Alex Mallorca taldekoa da, Carlos Athleticetako eta Gaizka Valencia taldekoa. Azken hau oso gustura dago bere bihotzeko taldeak egin duen den-

boraldi bikainaz eta izen bera duen Mendieta bizkaitarra du jokalaririk gustukoena.

Beraiekin eskubaloian partidua jokatu aurretik izan ginen eta oraindik taldeko neska iritsi gabe zeudenez, neska mutilak baino okerrago aritzen direla esan ziguten, baina hauek kontrakoa diotela apustu egingo genuke. Ikasturtea bukatzean dago eta amaiera emateko merienda bat izango dutela adierazi ziguten. Hala ere, datorren urtean ere eskola kirola egiten jarraitzeko asmoa dutela esan ziguten eta futbola, saskibaloia, beisbola eta hockeya egitea gustatuko li-tzaiekela esan ziguten.

Dena den, eskola-kirolean gustura aritzeaz gain, klasera ere gustura joaten omen dira eta plastika eta matematika atsegin dituztela diote.

AITUBE

Goizeko 7etatik aurrera zabalik
Gosarietan berezitasuna
Otarateko eta pintxo apartak
Areizaga enparantza, Urretxu ☎ 943 72 19 66

CHIARA

Etxerako lentzeria
Oparitarako gaiak

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19


ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎943722780

URRETXU



Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Selektibitatea urteroko amesgaiztoa

Ikasleek selektibitatea prestatzeko klaseak jaso ohi dituzte azterketa aurreko bi asteetan.



Ekaina ikasleen hilabeterik gustukoena ez bada ere, hauen artean badira hasiberria dugun hilabete honetako lehen egunak bereziki urduri eta ezinegonaz biziko dituztenak: batxilergoa amaitu ondoren, datorren bi aste barru selektibitatea egingo duten gazteak hain zuzen ere.

Horretarako lehenengo batxilergoko bi urteak bete behar izan dituzte, natur eta osasun zientzien, giza eta gizarte zientzien, teknologiaren zein artistiko alorretik. Ondoren selektibitatean denek historia, gaztelera, euskera eta ingeleseko azterketak egiteaz gain, beraien alorreko hiru azterketa egin beharko dituzte.

Baina ekaina eta selektibitatea heltzearekin batera urduritasuna eta larritasunaz gain eztabaida ere urtero berpizten da. Izan ere, ikasle eta irakasle asko selektibitate frogara kendu edo gutxienez aldaketak egitearen alde daude. Hala ere, badirudi hurrengo urteetan ere unibertsitateek

froga hau egiten jarraituko dutela batxilergotik datozen ikasleek behar bezalako maila duten ikusi eta unibertsitate sartzeko iragazki moduan.

Dena den, eztabaida honen ondorioz, urtero aldaketa txikiak ematen dira selektibitate frogan. Aurten selektibitatea 3 egunetan burutuko dute, ekainaren 14, 15 eta 16an, eta hautapeneko ikasgaietan modalidadekoak diren biek %40ko balioa izango dute eta besteak %20koa. Bestalde, batxilergoko notari %60ko balioa emango zaio eta selektibitatekoari %40koa unibertsitate sartzeko azken notan. Aldaketa honekin, selektibitate frogari egiten zaion kritiketako bati aurre egin nahi zaio: egun gutxi batzuetan eta kirioak jota egiten den azterketari gehiegizko balioa ematen zitzaiola zionari, hain zuzen ere.

Baina ziurrenik aldaketa hauek ere ez du jende gutzia konforme utziko eta selektibitatearen inguruko eztabaidak bizi-

rik iraungo du urtetik-urtera frogara geratutik bizi dutenen artean. Hori dela eta, aldaketa hauei buruz eta orokorrean selektibitate frogari buruz duten iritzia jasotzeko batxilergoko zenbait irakasle eta ikasleekin hitz egin dugu.

Garaialde Lizeoko Mariage Carrilloren esanetan "ikasleentzat selektibitate frogara trauma handia da eta unibertsitate sartzeko nota ona behar izaten dute, urduritasun handiz bizi dituzte egun horiek. Hori dela eta, gehienetan ez dute onena ematen. Gainera, azterketa egiteko baldintzak ez dira onenak: azterketak leku ezezagun batean egiten dituzte, azterketan akatsen bat badago irakasleak gelatik gelara pasa behar dira, zalantzaren bat badute beharbada irakasgai horretako irakaslea beste gela batean egongo da eta itxaron behar diote... Azken urteotan eman diren aldaketak onerako izan direla uste dut, baina nire esku balego selektibitatea

kenduko nuke. Izan ere, unibertsitatekoek ikastetxe ezberdinetan azterketak ez direla era berean puntuatzen diote eta selektibitatearen helburua hau berdintzea omen da, baina selektibitatean ere tribunal batetik bestera alde handiak daude zuzentzerako orduan. Ez dakit zer gertatuko den hurren-

Aurten selektibitateko notak %40 balioko du eta batxilergoko batzbestek %60

go urteetan selektibitatearekin, baina populazioaren jaitsiera orain hasi zaigu guri heltzen eta unibertsitatean ere irakasleak sobratu eta ikasleak faltako dira hurrengo urteetan.”

Aitor Zubizarretan ere Lizeoko irakaslea da eta Marijerekin ados agertzen da honetan: “Selektibitatearen bidez ikasle guztiei zailtasun berbera duten azterketak jartzea lortzen da, baina gero zuzentzaile guztiek ez badute berdin zuzentzen alferrik gabiltza. Egia da zentru guztietan ez direla azterketak irizpide berak jarraituz zuzentzen eta helburua irizpideak berdintzea baldin bada, fakultate bakoitzean sartu nahi duten ikasleei karrera horri buruzko frogak zehatz bat jarriko nieke.”

Mariaiek selektibitatea kentzearen aldeko beste arrazoi batzuk baditu: “ikasgai bakoitzak koordinatzaile bat du, hauek programa ezartzen digute eta azterketa nondik-nora joango den esaten digute, baina ikasgai batzuetan urtean zehar ez dugu beraiekin bilera bakar bat ere izaten eta beste batzuetan erreklamazioak egin izan ditugu bileretan esan ez diren gaien bat sartu dutelako azterketan. Bestalde, guk, azterketaz gain, ikasleek urtean zehar egin duten lana eta erakutsi duten jarrera baloratzen dugu eta selektibitateko zuzentzaileek ez dute hau baloratzerik.”

Institutuan Julen Iturriozekin hitz egin dugu eta bere ustez selektibitatearen hutsunea bere funtzioan dago: “egun selektibitatea hainbat fakultatetara sartzeko iragazki bat besterik ez da eta horretarako bakarrik da eraginkorra. Diseinuan unibertsitateak soilik parte hartzen du, temario bat bidaltzen digute eta helburutzat azkenean hau betetzea hartzen dugunez, azterketa hutsaren dinamikan sartzeko gara gu ere. Egun dagoen moduan planteaturik ez duela ezertarako balio iruditzen

zait eta kendu egin beharko litzatekeela.”

Baina Julen ez dago berez selektibitatearen aurka, “ebaluazio moduan erabiliko balitz, bere alde nengoke. Izan ere, ikastetxeetan kurrikulumak berdinak izan arren, gaiak emateko eta ebaluatzeko oso modu ezberdinak daude eta askotan notak puztu egiten dituzte. Hau dela eta, selektibitatea ikastetxeetako kriterioak berdindu eta bertan jartzen diren notak kontrolatzeko izan beharko litzateke. Horretarako ikastetxeok partaidetza handiagoa izan beharko genuke selektibitatearen diseinuan eta harreman estua-goa izan bere arduradunekin, ikasleen benetako maila zein den hobe jakin dezaten. Honi esker unibertsitateak bere ikasleen abiapuntua zein den hobe jakingo luke.

Aurten eman behar diren aldaketan inguruan bere zalantzak ditu: “espedienteak %60ko balioa izatea printzipioz onuragarria da, baina ikastetxe batzuek bere ikasleen notak are gehiago puztekar dezake. Bestalde, modalidadeko ikasgaiek garrantzi handiagoa izatea ondo dago, baina formazio integralerako beste ikasgaiak oso garrantzitsuak dira. Nik selektibitatea ikasgai orokorretarako utziko nuke eta espezifikoa neurtzeko fakultate bakoitzak bere gaiaren inguruan azterketa bat egitea proposatuko nuke. Honi esker ikasleek zer maila duten jakiteaz gain, ikastetxeoi gure gabezien berri emango ligukete. Materiak ikastetxeekin batera adostea gustatuko litzaidake eta gero adostutakoaren arabera baloratzea. Hau lan gogorragoa izango litzateke, baina askoz ere bidezkoagoa. Helburua ebaluazioa izan behar da eta ez eliminazioa.”

Eta ikasleek zer diote? Mikel Lizarraga, Rebeka Mujika eta Mikel Igarza Lizeoko ikasleek batxilergoko bigarren mailan eman dute aurtengo ikasturtea eta maiatzeko errekeraketara azterketak hasi aurreko egunean egon ginen beraiekin. Euren esanetan batxilergoko 2. maila 1.a baino zailagoa izan da, seguraski selektibitate ondo prestaturik joan daitezela. Espero zitekeen moduan, ikasleak ez daude irakasleek esandakoarekin guztiz ados eta beraiei ere, beste ikastetxe batzuetan bezala, notak zertxobait puzteko gustatuko litzaike: “Lizeoan selektibitate oso ondo prestaturik joaten garela esaten da,

baina beharbada hobe izango litzateke zertxobait gutxiago esijitu eta batxilergoan batzbesteko hobe izatea. Gainera, orain selektibitateak %40ko balioa soilik duenez, batxilergoko notak garrantzi handiagoa hartuko du”.

Selektibitate azterketak egiteko egun gutxi falta zitzaizkiela, errekeraketa azterketei beldur gehiago zieten selektibitateari berari baino. Izan ere, maiatzeko errekerazioak gainditu beharra dituzte selektibitateko lehen deialdian sartzeko. Bestela bigarren deialdian egin beharko lukete eta aurten unibertsitateara joateko oso aukera gutxi izango lukete. Bestalde, aukeratutako ikasketaren arabera ere, selektibitatearen garrantzia aldatu egiten da. Mikel Igarzak eta Rebekak, adibidez, ez dute oso nota altua behar ikasi nahi duten karreran sartzeko eta beraz, selektibitatea aprobate hutsarekin aski izango dute.

Selektibitatearekin zer egingo luketen galdetu genienean, bat-bateko erantzuna oso argi zuten: kendu egingo luketela esan ziguten. Baina badakite unibertsitatean ez dagoela denentzako tokirik eta ikastetxe guztietan ikasleen lana berdin baloratzen ez denez, hau berdintzeko zerbait egin beharra dagoela. Euren irtenbidea selektibitateak batzbestean duen balioa are gehiago jaitea litzateke. Honela ez luke hainbesteko presiorik sortuko eta ba-

Ikasleak zein irakasleak, arrazoi batengatik edo bestearengatik, selektibitateaz kexu dira

txilergoan nota onak ateratzen saiatu ondoren, batxilergoko batzbestea igotzeko aukera bat izango litzateke eliminazio frogatik baino gehiago. Izan ere, orainarte %50eko balioa eman izana gehiegizkoa iruditzen zaie, egun txar batek urtetako lana pikutara bidali baitzezakeen.

Dena den, selektibitatearen aurretik errekeraketak dituzte eta hauek gainditzea lortzen badute, selektibitatearako prestaketa lasai xamar hartzeko asmoa dute: “15 egun izango ditugu ikasteko eta norberak jakingo du nola antolatu, guk lehenengo egunetan atsedean pixka bat hartuko dugu. Gainera selektibitatea prestatzeko klaseak ere baditugu egun horietan eta honek asko lagunduko gaitu”.

Ekaineko agenda

-San Juan jaiak

-Zumarragan:

-Ekainaren 23an, 20:45etan, Musika Bandaren eta Antziñako Ama txistularien kalejira.
-22:00etan: suaren piztea eta Udal Bandaren saioa.

-Urretxun:

-Ekainaren 23an, gaueko 10:30etan, Gernikako Arbola plazan, San Juan sua eta ondoren trikitixa.
-Ekainaren 24etan, San Juan eguneko erro-meria Santa Barbarako kanpan (mahaien zozketarako izena Kultur Etxean, ekainaren 9ra bitartean).

-Kaleko zinea

-Gaueko 10etan Zelai Arizti pilotalekuan. Ekainaren 16an "Barrio" eta ekainaren 17an "Todo sobre mi madre".

-Haur eta gazteentzako ekintzak

-Larunbatetan festara

Haurrentzako eskulanak, kaskazuriren eskutik. Larunbatero Urretxuko Kultur Etxean, dohainik, 11etatik 1ak arte.

-Musika

-"Iparragirre Balerdi" musika tailerraren kontzertua

Ekainaren 4ean, San Martin de Tours elizan, arratsaldeko 7etan.

-Txalaparta jaialdia

Zuhaitzaren Soinoa txalapartari taldeak antolatuta, ekainaren 17an, Iparragirre plazan, gaueko 10:30etan.

-Secundino Esnaola Musika Eskola

Talde instrumentalaren kontzertua. Ekainak 25ean, eguerdiko 1etan, Euskadi enparantzan.

-Goiargi eta Kimets Goiargiren kontzertu korala

Ekainaren 25ean, igandea, arratsaldeko 8etan, Mertzadariatarren elizan.

-Dantza

-"Lurra" dantza taldearen XXI. Dantzari Txikia:

Ekainaren 18an. Goizean, 12etan, Pagoetatik irtenda eta Areizaga-Kalebarren plazaraino, kalejira.

Arratsaldean, 5:30etan hasita, Dantza Emanaldia Gernikako Arbola plazan (eguraldi txarra izanez gero, frontoian egingo da).

-"Irrintzi" dantza taldearen Dantzari Txiki Eguna:

Ekainaren 11n.

-Erakusketak

-Itarte Etxean

-Ekainaren 2etik 11ra: 2000ko Santa Isabel jaietako egitarauaren azala aukeratzeko antolatutako lehiaketara aurkeztutako lanak.
-Ekainaren 12tik 15era: Gazte Txokotako tailerretan egindako lanak.
-Ekainaren 16tik 25era: Josu Iztuetaren "Hiru pausu, hiru norabide" argazki erakusketa.
-Ekainaren 29tik uztailaren 9ra: Begoña Zangituren "Jende xehearen istoriak" argazki erakusketa.

-Juan de Lizarazu erakusgelan

-Gainzuri ikastetxeko ikasleek egindako eskulanen erakusketa. Ekainaren 5etik 9ra bitartean.
-Arte Ederretako Tailerra eta Harizpi Elkartearen erakusketa kolektiboa. Pintura, eskultura eta zaharberritutako altzariak. Ekainaren 15etik 25era bitartean.
-Olatz Goiburu eta Jaione Berasategiren pintura erakusketa. Ekainaren 29tik uztailaren 9ra bitartean.

-Bazko asteko diapositiben proiezioa

Ekainaren 10ean, Kultur Etxean, goizeko 11:30etan.

-Kirolak

-Goierrri Mendi Taldearen irteera

Ekainaren 17-18an: Cebollera parke naturala. Castillo de Vinuesa (2.086m.) - Pico Cebollera (2.146 m.).

-Lehiaketak

-Santa Isabel jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketako sari banaketa: ekainak 2an, arratsaldeko 7:30etan, Itarte Etxean.
-Lore lehiaketa: Izena emateko epea, ekainaren 9a arte. Epaimahaia ekainaren 12tik 17ra bitartean pasako da.
-Eskolarteko XII. Bertso paper lehiaketaren sari banaketa: ekainaren 9an, goizeko 11:30etan, Pagoeta Antzokian.
-Iparragirre sariak: Lanak aurkezteko azken eguna, uztailaren 14a.
-Pintura, argazki, bertso-paper eta komiki lehiaketak: Lanak aurkezteko azken eguna, irailaren 8a.



Ainhoa, hori da hori estuasun aurpegi! Katekistak ez al zizun komunera joaten uzten ala? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Ander, etzak txintxo aurpegi hori jarri, hemen danok ezagutzen gaituk eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Asun, zure aurpegi maitagarria ikusita, ez dirudi azkurarik sortzen duzunik, baina badakizu, sekula ez dago fidatzerik! **Zorionak!**



Asun, hori da hori irrifarrea, lerdea darizula zaude biloba jaioberriarekin! **Zorionak** eta etazue Jonen eskutan gehiegitan utzi, ez dio gauza onik erakutsiko eta!



Balen, Saralegi bera baino morroskoagoa egina hago. Bota piñue eta erein porrue!! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Ekaitz, etxean sekulako burrunba sortzen duzulako jarri al zizuten izen hori? Barealdiren bat ere eskainiko diezu ba? **Zorionak!**



Ez dakizu, badakizu, **Alaitz** zu, alaiia zu, amari so, aitari so, gure lilura zara zu, zarelako alaiia, alaiia, alaiia... Alaiena zara zu. **Zorionak!**



Goya, ea noiz margotzen diguzun agindutako erretratu! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Igone, horrela atera behar da argazkietan, txintxo-txintxo eta kamerari aurrez-aurre begira. Ikastaro bat antolatut beharko duzu! **Zorionak!**



Jon Ander, esaiok amari hurrengoan argazki orijinala uzteko, fotokopiekin ez zegok gauza txukunik egiterik eta! **Zorionak!**



Jon Ander, Real Madrilek Champions Leaguea irabazi duelako al zaude garaipenaren ikurra egiten? Hau da hau... **Zorionak!**



Lara, urtebete zaharragoa zarela eta zeharo tristetu al zara? Lasai neska, oraindik gaztaro luzea geratzen zaizu eta! **Zorionak!**



Jose, alaitu ezak aurpegi hori motel! Emaztea alboan daukak algara batean eta hik ordea "Pierre no doy una" dirudik! **Zorionak!**



Joxepi, senarraren urtebetetzea ere bada eta oparitu iezaiozu irrifarre bat, ea berak ere aurpegia alaitzen duen! **Zorionak!**



Lucia, zer moduz doakizu bizia? Etzazu galdu alaitasun aurpegia eta ondo pasa urtebetetzia! **Zorionak!**



Honako hauek **Noel** eta **Joseba** dira eta konturatuko zinetenez antza dextenute (izan ere bixkiak dira). Txintxo aurpegia duten arren, ez zaitzete gehiegi fido, hauek ere zer ezkutatut izango dute eta! **Zorionak** bikote eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Maria Isabel, ikusten dugu bai guapaguapa atera zinela gaztaroko argazki honetan, baina "la arruga es bella" diote eta ez zaitze zahartzeaz lotsatu! **Zorionak!**



Oier, kamera berria erosi ezazu motel, flasha eta guzti dakartenak merke asko saltzen dituzte eta! **Zorionak!**



Pilar, seme-alabek autoarekin zituzten komeriak konpondu al dituzte? Lasaitu ederra hartuko zenuen! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Jokine, zer moduz ibili zara Irlanda aldean? Parrandan joan asmoz etorriko zinen! Etxera turroiarekin itzuli behar da eta ez San Juanetan! **Zorionak!**



Dani, hori da hori irrifarre maltzurra duzuna! Gurekin behintzat ondo portatu zaitze, oraindik ez dizugu ezer egin eta! **Zorionak!**



Laida, urtebetetze egunerako zer opari eskatu behar duzun erabaki al duzu? Eskatu beldurrik gabe, eskatzea libre da eta! **Zorionak!**



Samuel, ez duzu ez bihurri aurpegi makala! Segi lasai bihurrikeriak egiten, oraindik urte batzuetan barkatuko dizute eta! **Zorionak!**



Marina, urtero zoriontzen zaitugu eta oraindik ez dugu zuri irrifarrerik ateratzea lortu. Datorren urtean berriro saiatu beharko gara! **Zorionak!**



Mertxe, txisteren bat kontaiozu alboan duzun senitarte koari, ea aurpegia pixka bat alaitzen duen! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Zorionak Mirian eta Jose Migel. Zuen makilatzaileak Oscar saria merezi du gero! Ondo pasa ezkontza eguna eta ondorengoak!


MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan


Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA


HARGOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42


HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58


BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuk, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA


KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



Pagoeta Antzokian
entsaiatu eta gordetzen
dituzte txalapartak.

Zuhaitzaren Soinua

Txalapartaren jatorriaz oso teoria ezberdinak dauden arren, gehienen ustez haseran txalapartaren bidez zaldiaren pausoaren antzeko hotsa egin nahi zen. Txalapartaz jo beharrekoari dagokionez esan, festarako deia nola jo behar den zehaztua badago ere, gainontzekoetan txalapartariak eurek aurretik prestaturiko erritmoak edota momentuan sortutakoak jo ohi dituztela. Hori bai, txalapartarien kolpeak betidanik ezagutzen direnak ditugu: bikoak, herrena eta laukoak. Bikoak soinuaren oinarria darama eta herrenak eta laukoak erantzuna ematen diote.

Txalapartari berari dagokionez, egun arruntena bi hanken gainean eutsirik jotzea den arren, ez dago argi betidanik hala izan den eta egun ere, esperimentaziorako joera handia dago: bai egurrak zeren gainean kokatu erabakitzerako orduan, bai egur moeta aukeratzeko orduan ere. Argi dagoena zera da, azken urte hauetan berezko perkusio tresna dugun txalaparta guztiz indarberriturik ageri zaigula eta edozein herri edo auzotako ospakizunetan bere ttakun gozoz gozatzeko aukera dagoela. Gure bi herriotan ere txalaparta indartsu

ageri zaigu eta mendeetako historia duen euskal tresna zaharra jotzen duten hainbat lagun daude, hauen artean Zuhaitzaren Soinua taldekoak aipatu behar ditugu.

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa 92 urtean sortu zuten, txalaparta jotzen zekiten hainbat lagunek herrian zaletasun hau zabaldu eta bizirik mantentzeko helburuaz. Horretarako ikastaro bat egin zuten "Kanpiton", beldur pixka batez, ez baitzekiten jendearen erantzuna nolakoa izango zen. Baina erantzuna bikaina izan zen eta hurrengo urtean beste ikastaro bat antolatzearabaki zuten. 40 bat lagun elkartu ziren eta hiru txanda antolatu behar izan zituzten denei erakutsi ahal izateko. Hauetako lagun batzuk txalaparta jotzen jarraitu zuten eta egun 12 bat lagunek osatzen dute Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa.

Dena den, ikastaroetan parte hartu duten gainontzeko lagunek ere ez dute taldearekin harremana galdu eta dirua ateratzeko Urretxuko festetan txosna jarri zutenean, adibidez, denek parte hartu zuten. Arazo nagusia, hainbeste lagun izanda, denek txalaparta jotzen jarraitzea zail xamarra izatea da. Izan ere, Pagoeta

Antzokian aritzen dira eta bertan egoteko ordutegia mugatua izateaz gain, antolaketa lan handia egin beharko lukete denen ordutegira moldatu ahal izateko. Hala ere, beraien asmoa aurrerantzean ahalik eta jende gehienari txalaparta jotzen jarraitzeko aukera ematea da, honela taldeak oinarri sendoa lortuko luke eta lagun batzuek utziko balute ere, taldeak eta herriko txalapartazaleentzako bizirik iraungo bailuke erronka berriei aurre egiteko.

Aurtengo San Juanen aurreko asteburuan, duela lau urte antolatu zuten bezala, Txalaparta Festa antolatzeko asmoa dute eta urte amaierarako beste ikastaro bat ere antolatzeko asmoa dute. Dena den, beraien lanaren funtsa Urretxu eta Zumarragan txalapartazaleentzako indartzea bada ere, bi herrietatik kanpo ere sarritan jo ohi dute. Azkeneko irteera Kanbon ospatu zen Gazte Topaketara egin zuten, baina eguraldi txarra zela eta, ezin izan zuten jo. Euskal Herriatik kanpo ere hainbat lekutan aritu dira: Madrilen, Guadalajaran, Avilesen... esaterako. Madrileko etxe okupatuetako jendearekin eta Guadalajarakoekin oso harreman ona

Maitane Andueza, munduko trialsin txapelketan

Maitane Andueza ezkiotarrak 14 urte ditu eta duela 3 urte ekin zion trialsina egiteari. Urte gutxi hauetan Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak irabaztea lortu du jada. Nahiz eta Euskal Herrian kirol hau egin nahi dutenek ez duten erraztasun handirik, gure artean trialsinak duen tradizio falta dela eta euren kabuz ikasi beharra

baitute, aurten Zafra, Cartagena, Vandellós eta Murgian izan diren frogen ondoren estatu mailako txapelketan bigarren postua lortu du. Lan bikain honi esker munduko txapelketarako sailkatu da eta egun hauetan Sierra Nevada dugu mundu mailan bizikleta baten gainean abilezia gehien dutenen artean.

Nolatan hasi zinen trialsina egiten?

Nire lehengusu bat trialsinean aritzen zen eta duela hiru urte Santa Barbaran ospatu zen froga batera joan nintzen. Bertan parte hartu nahi genuenoi bizikletak utzi zizkiguten eta oso gustura ibili nintzen. Etxera itzuli nintzenean bizikleta eske hasi nintzen eta erosi zidatenetik ez naiz gelditu.

Zer froga egiten dituzue txapelketetan?

Hiru zailtasun maila daude txapelketetan: txuria, urdina eta gorria. Ni, guztiak bezala, maila txurian hasi nintzen eta orain urdinean aritzen naiz. Zenbat eta maila zailagoa, orduan eta gaintu beharreko oztopo handiagoak. Maila gorrian oztopoak izugarri handiak dira eta indar handia behar da hauek gaintzeko. Hori dela eta, oraindik neska guztiok maila urdinean parte hartzen dugu. Hala ere, egunen batean neskaren bat maila gorrira helduko dela pentsatzen dut.

Zer inpresio ekarri zenuen estatuko txapelketatik?

Euskal Herrian izaten direnetan baino oztopo zailagoak jartzen dituztela iruditu zitzaidan. Hala ere, gustura aritu nintzen eta azkenean ni baino urte pare bat zaharragoa den Genma Bou kataluniarraren atzetik gelditu nintzen. Kataluniarrak onenak dira, bertan trialsinak indar handia baitu eta trialsin eskolak baitaude.

Bere abileziak munduko txapelketan parte hartzeko aukera eskaini dio Maitaneri.



Argazkia: Javier Aguado

Bigarren postua lortzearekin oso gustura nago, biok munduko txapelketan parte hartzeko aukera baitugu.

Zer espero duzu lortzea munduko txapelketan?

Bertan parte hartzea sari handia da jada eta ikusi eta ikastera noa batik bat.

30 lagunek parte hartuko dugu eta kanporaketa bidez izango denez, lehenengo frogaren ondoren 15 partaide kanporatuak izango gara. Neska guztiok batera parte hartzen dugunez, adin bereizketarik gabe, nahiko zaila ikusten dut lehenengo kanporaketa pasatzea. Izan ere, esan didatenez, munduko txapelketan 30 urte inguruko jendeak ere parte hartzen baitu.

Munduko txapelketarako prestaketa berezirik egin al duzu?

Ez, beti bezala aritu naiz entrenatzen. Bizikleta hartu eta Santa Barbarako igoeran dauden harri batzuetan aritzen naiz normalean. Hala ere, indarraz gain erresistentzia ere landu beharra dago eta horretarako astean lau bat aldiz mendiko bizikletan aritzen naiz Ezkio, Ormaiztegi eta Gabiria aldean.

Gurasoak oso gustura izango dituzu...

Bai, oso gustura daude, nahiz eta txapelketak ditudanean lanean jai eskatu beharra duten eta trialsina egitea nahiko garestia den. Izan ere, bizikletak eta arropaz gain, bidaiak eta egonaldiak ere nahiko garesti ateratzen dira. Trialsinak komunikabideetan beste kirol batzuek adinako jarraipenik ez duenez, dena gurasoek ordaindu beharra dute. Ea telebistan eta gainontzeko komunikabideetan trialsinaren berri ematen duten kirol honekiko zaletasuna zabal dadin.

Larraitz txakurak gidatzen Monegroetan barrena izan zen lasterketan.



Larraitz Sorrón: "Zakurrik onenak pointer eta huskien nahasketak dira"

Larraitz Sorrón Zumarragarra duela 3 urte, 13 urte besterik ez zituela, alaskar jatorriko zakur bat erosi zuenean, seguraski, etzuen espero honek bere bizitzan hainbesteko aldaketa suposatuko zuenik. Baina zakurra etxera ekarri eta gutxira, saltzaileak txakurrari kirola

egitea komeni zitzaiola eta horretarako onena bizikletatik tiraka jartzea zela esan zion. Ordutik hona, txakurra kirola bere bihurtu du eta egun 6 txakur tiraka dituela ahal duen zakur-lera lasterketa guztietan parte hartzen du.

Nolatan hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

8 bat hilabete zituela tiraka jarri nuen zakurra kirola egin zezan. Izan ere zakur hauek kirola egin beharra dute, bestela nekatuta ez badaude askatu eta berehala korrikan joaten baitira nekatu arte. Hemengo mendi inguruetan oilo eta ardi asko daudenez, hau oso arriskutsua da. Lehen zakur hura tiraka jarri nuen eta maila ona hartu zuenean lasterketaren batera aurkeztea pentsatu nuen. Hasieran zakur bakar batekin eta bizikletarekin Nafarroan aurkeztu ginen eta oso gustura ibili nintzen. Nik neuk erakutsi nion tiratzen, saltzaileak esan zigunez jabeak berak erakutsi behar baitio gero kasu egin diezaion. Aginduak lau izaten dira: aurrera egiteko, gelditzeko, ezkerretara joateko eta eskubitara joateko. Hasieratik euskaraz egiten nien zakurrei eta euskaraz ulertzen didate.

Gogor ekin zenion kirolari, egun txakur

mordoa baitituzu...

Bai, ni oso gustura nengibilen lasterketetan eta Bergarako saltzaileak zakur guztientzat lekurik ez zuela eta beste batzuk eskaini zizkigun. Honela, azkenean 6 zakur jaso ditugu eta orain beste bat hartu dugu baserria zaintzeko. Hau alemaniar arrazako artzain zakurra da, elurretakoek ez baitute etxea zaintzeko balio, baina hau ere tiraka jarri behar dugu, horretarako ere aproposa baita.

Zaila al da hainbeste zakur elkarrekin lanean jartzea?

Hasieran koordinazioa lortzea zail xamarra da, bakoitzak bere aldera joateko joera baitu. Hori dela eta, azkarrena eta aginduei arreta gehien jartzen duena aurrean jartzen da gainontzekoak gida ditzan. Bere alboan umilena jartzen dugu, arazorik eman ez diezaion. Atzekoen lana jarraitzea besterik ez den arren, ondo erakutsiak egotea komeni da, zakurrek ardiren bat ikusten dutenean bere atzetik joateko

joera baitute. Hasieran lehenengo lortu nuen zakurra jartzen nuen aurrealdean, baina harroputz xamarra da eta orain beste bat jartzen dut. Normalean emeek kasu gehiago egiten dute.

Zer arrazatako zakurrak dira aipose-nak?

Iaz arte bi maila zeuden: nordikoen eta gainontzekoena, baina aurrean denek batera parte hartu dute. Zakurrik azkarrenak pointerrekin nahasturiko huskieak dira eta normalean Alemania edo Kanadatik ekartzen dira. Zakur hauek hotzarekin arazo gehiago izaten dituztenez, neoprenozko jantziak jartzen zaizkie.

Huskie arrazako txakurrek ez al dute berorik pasatzen inguru hauetan?

Udan bero dexte pasatzen dute eta beti itzaletan egon nahi izaten dute, hori dela eta udan ez dira jada entrenamendu, ez karrerarik egoten. Nik normalean Leizaran ingurura eramaten ditut entrenatzera. Bi egunetan behin entrenatzea kome-

ni da eta distantzia luzeko lasterketetan parte hartzen badute, 20 bat kilometro egiten dute. Bestela 8 bat.

Zuk zeuk zakurrekin soilik entrenatzen al duzu?

Zakurrekin entrenatzeaz gain, bakarrik ere kirola egitera joaten naiz denbora dudanean. Izan ere, sasoi onean egon beharra dago, aldapa gora zakurrei gurditik tira egiten lagundu behar baitzaie.

Garesti ateratzen al da lasterketako zakurrak mantentzea?

Hainbeste zakurrentzako janaria erostea da garestiena, baina sasoi onean egon behar direnez, ez zaie jaten gehiegi eman behar. Zakurrak lortzea ez da batere garestia. Izan ere, maila onena duten musherrek (lasterkariak), uneoro zakurrez aldatzen dute geroz eta hobeak izateko. Hori dela eta kentzen dituzten zakurrak oparitu egiten dituzte. Bestalde, mediku zainketa oso berezia ez dute behar: lasterketara joateko zakurrek txertoa jarrita izatea eskatzen dute eta lasterketa aurretik eta ondoren parasitoak hiltzea komeni da, ez baitago jakiterik besteen zakurrak behar bezala zainduak dauden.

“Lasterketetan aritzeko adinik onena 4-5 urte bitartean dute”

Zein adinetako zakurrak dira egokienak lasterketetan aritzeko?

8 bat hilabeterekin hasten zaie erakusten, baina urtebete izan arte, hezurrak ondo osatuak izan arte, ez zaie lasterketetan parte hartzen uzten. Zakur batzuk, 15 urte dituztela oraindik ondo aritzen dira, baina normalean 8 urtetik gora zahar xamarrak dira jada. Adinik onena 4-5 urte dira. Nire zakur zaharrenak 12 urte ditu eta hau jada ahizpari utzi diot, bera ere lasterketetan hasi baita. Gainontzekoek 3 urte inguru dituzte eta beraz, oraindik hobetu dezakete.

Zein lasterketatan parte hartu duzu orainarte?

Normalean Nafarroako ligara eta Espainiako txapelketara joaten naiz, elurretan zein pistetan burutzen direneta. Aurten 18 urte azpikoentzat munduko txapelketa antolatuta dute Baqueira Bereten eta kanpokoek irabaztea komeni zitzaizen dato-

zen urteetan ere bueltatu zitezten. Hori dela eta, Espainiako txapelketarako puntuatu nahi bagenuen lau zakurrekin soilik atera gintezkeela esan ziguten eta gainontzekoei 6 zakurrekin parte hartzen utzi zieten. Hala ere, 10 lehenengoan artean egin nuen. Esperientziak garrantzi handia du, trineoa manejatzeko behar den teknika denborak ematen baitu.

Zer moduz joan da aurtengo denboraldia?

Aurten atzerakada txiki bat izan dut, bi zakur berri sartu eta koordinatzeko arazo dexente izan baititut. Bestalde 12 urte dituen zakurrekin arazoak izan ditut. Berak parte hartu nahi zuela ikusten nuen eta pena ematen zidan kentzea, baina ezin zuen maila eman eta bera ere konturatzea kosta zitzaidan arren, azkenean kendu behar izan dut. Bere orde bestea bat jarri dudanean jada hobeto aritu naiz.

ikusten al duzu?

Nahiko zaila ikusten dut. Ez digute esan zer egin behar den, baina sailkatzeko Espainiako txapelketan hiru lehenengoan artean geratzen direnak joango dira zurrerrenik. Iaz bigarren gelditzea lortu nuen eta itxaropen txikiren bat badut.

Ba al dago bertan parte hartzea bereziki gustatuko litzaizukeen lasterketaren bat?

Alaskan ospatzen den Iditarod lasterketara joatea oso polita izango litzateke, baina Europatik joan direneta Malagako batek bakarrik lortu du lasterketa bukatzea eta horretarako lau urte eman behar izan ditu bertan bizitzen. Han zegoenean, musher batentzako lanean ari zela, hau hil eta bere zakurrekin geratzeko aukera izan zuen. Lasterketa honek kilometro mordoa ditu eta fusilak eraman behar izaten dituzte, hartzei aurre egiteko.

Zakur emeek harrek baino arreta handiagoa jartzen omen dute.




Euskal Herrian afizio handia al dago?

Bizkaia eta Gipuzkoan ez dago afizio handiegirik, baina Nafarroan sekulako afizioa dute eta Kataluniarrekin lehia handia izaten dute. Ni Nafarroako federazioan federatua nago. Izan ere, Gipuzkoako federazioa iaz sortu zuten eta Nafarroakoan eskarmentu handiagoa dute. Kostata ari da zaletasuna indartzen, izan ere 2002an kirol olinpikoa izango denez, lehiakortasuna gero eta handiagoa da eta afizio hutsez aritzen ziren askok lasterketetan aritzeari utzi diote.

Joko Olinpikoetara joateko aukerarik

Musherrak handler izeneko laguntzaile bat eramaten du, zein izaten da bere lana?

Oso lan garrantzitsua du, zer ordutan atera behar zaren kontrolatzen baitu, zakurrei jana eta edana ematen lagundu, arnesak jarri, tiroak ondo daudela ziurtatzen du, zakurrak eusten ditu lasterketan hasi baino lehen... Orainarte lan hau nire ahizpak egin du, baina bera ere lasterketetan hasi behar denez, orain aita dut handlerra. Aurrera atera bagara gure gurasoei esker izan da, hainbeste zakur izateko trabarik ez baitzikigute jarri.



Asier Otamendi

Urretxuko Elosieta baserrian jaioa, Ikastola eta Lizeoan ikasketak burutu ondoren, Gasteiza IVEF ikastera joateko asmoa zuen. Mendi artean jaioa izanik, igeriketa frogan kale egin zuen eta azkenean Elikagaien zientzia eta teknologia ikastea erabaki zuen. Ikasle garai haietaz oso oroimen ona du, karrera gus-tukoa izateaz gain, lagun ugari egin eta parrandarako aukera ere izan baitzuen Gasteizen. 22 urte zituela gazteagotan izandako bertsozaletasuna berpiztu zitzaion eta bertso-eskolara joan zen Gasteizen. Argi dago goitik-behera asmatu zuela, egun Arabako bertsolari onentsuena baita, eta aurten laugarrengoz irabazi baitu San Prudentzio saria. Bertso-eskolako bertsolaria izanik, bertsolaria egin egiten dela uste du eta horretarako asko saiatu behar omen da.

Egun ikasle garaietan ezagutu zuen Gasteizen jarraitzen du, bertako AEKn irakasle baita, baina bere burua abenturazaleztat duenez, ez daki non bukatuko duen eta ez die aldaketei beldurrik. Hori bai, dena delako tokian egonik ere, Euskal Herria aske eta mundua zertxobait hobeto ikustea nahiko luke.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Kazetaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Kirola egitea, batez ere bizikletan ibiltzea.

-Bizitzeko toki bat?

Karibea.

-San Prudentzioak ala San Juanak?

Edozein jai da ona eta bietara joateko aukera badut, hobe.

-Armentia ala Santa Barbara?

Bata edo bestea, berdin zait.

-Zeinekin arituko zinateke gustura koplatan?

Uztapiderekin eta Lazkao Txikirekin.

-Bertsolaria izanda gehiago ligatzen al da?

Ez, gehiago mozkortzen da.

-Zortziko txikia ala zortziko nagusia?

Zortziko txikia nahiago dut, biiziagoa baita.

-Nori botako zenizkioke kopla batzuk?

Iparragirreri.

-Zein neskari botako zenizkioke bertso pare bat?

Lorena Bernali.

-Arabako patatak ala Elosietakoak?

Elosietakoak, badakit natural-naturalak direla eta.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Jende asko.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagunekin.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Denak.

-Egindako azken oparia?

Ez naiz oparizalea.

-Eta jasotakoa?

Pisuko kideek oparitu zidaten saskibaloi baloia.

-Data bat?

Santa Anastasia eguna, Urretxuko jaiak puntu berezi hori dute.

-Neska izen bat?

Goizeder.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Euskaldunon Egunkaria.

-Gustuko telebista saioa?

Dokumentalak atsegin ditut, batez ere naturari buruzkoak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano.

-Liburu bat.

Eneko Aritza.

-Filme bat.

El nombre de la rosa.

-Gustuko abestia?

Euskal kantarien asko eta asko, bat esatekotan Agur, Zuberora.

-Soinu bat.

Egunsentiko txorien kantua.

-Usain bat.

Loreena.

-Ukitzeko...

Giza azala.

-Janari bat.

Zainzuriak.

-Ura ala...

Egunez ura eta gaez Errioxako ardoa.

asirauto



Bigarren eskuko autoetan aukera zabala



Mugitegi industrialdea URRETXU

Telf. eta faxa: 943 72 59 22 Mugikorra: 659 67 89 79



UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA



943 72 54 77

❖ BATXILERGO TEKNOLOGIKOA "D" ereduari
BACHILLERATO TECNOLÓGICO modelo "A"


GURE ESKEINTZA

❖ ERDI MAILAKO ZIKLOAK (2.000 orduko zikloak)


Mekanizazioa: bi ikasturte.

Ekipo eta instalazio elektroteknikoak: bi ikasturte.

Ziklo amaieran lan praktikak burutzen dira enpresetan.



Urola Garaiko Lanbide Eskolan aurki dezakezu



RESIDER II



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA